

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Alkatearen eginkizunak eskuordetzea

Alkatearen irailaren 27ko 276/2021 Ebazpenaren bidez hitzez hitz jasotzen den xedapen zati hau onetsi zen:

Lehenengoa. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 23.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, Amagoia Sáez de Ibarra Veá-Murguia lehen alkateordearengan uztea alkatearen eginkizun guztiak 2021eko irailaren 29tik urriaren 12ra bitartean, biak barne, alkatea oportetan egongo baita.

Bigarrena. Eskuordetzearen barne daude zuzentzeko eta kudeatzeko ahalmena, bai eta kasuan kasuko administrazio prozedurak ebazteko ere, hirugarrenei eragiten dieten administrazio egintzak hartuta.

Hirugarrena. Organo eskuordeak, gerora, eta betiere eskatzen zaionean, aipatutako epean egindako kudeaketaren eta hartutako xedapenen berri eman beharko dio alkateari, eta erabaki garrantzitsuak izanez gero, aldez aurretik, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Arautegia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak 115. artikuluan xedatzen duenez.

Laugarrena. Dekretu honen bidez ematen den eskuordetzeak organo eskuordearen onepena behar du eraginkorra izan dadin, eta isilbidez onetsi dela ulertuko da baldin eta alkateari ez bazaio eskuordetzearen kontrako adierazpenik idatziz aurkezten ebazpen hau jakinarazten den egunaren hurrengotik hasi eta hiru egun balioduneko epearen barruan.

Bosgarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da, eta horren berri emango zaio udalbatzari egiten duen lehenengo bilkuran.

Seigarrena. Ebazpen honetan berariaz aurreikusi ez den guztian zuzenean aplikatuko dira arau hauetan eskuordetzeei buruz xedatutakoak: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, eta Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Arautegia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua.

Dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da, bat etorritik Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Arautegia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak 44.2 artikuluan xedatutakoarekin.

Dura, 2021eko irailaren 27a

Alkatea

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE